

1350/2017 EBAZPENA, 2017ko uztailaren 31koa, Nafarroako Unibertsitate Publikoko errektoreak emana, “Hiru minututan” lehiaketako deialdia onetsi eta dagokion gastua baimentzen duena.

Ikusirik Kultura Zientifikoaren Unitateak egindako proposamena, Komunikazio Atalak ontzat eman duena.

Ikusirik Aholkularitza Juridikoaren txostena.

Kontabilitate Atalak kreditua badela ziurtatzeko emandako egiaztagiria eta Unibertsitatearen kontu-hartzaileak egindako fiskalizazioa ikusi eta gero.

Nafarroako Unibertsitate Publikoko Estatutuen 40. artikuluan esleituta dauzkadan eskumenak betez,

EBATZI DUT:

Lehena.- Onestea “**Hiru minututan**” lehiaketako 2017. urterako deialdia, saritzeko gradu/ziklo eta master amaierako lanen edukiak publiko ez-espezializatuari hobekien azaltzea lortzen duten gradu/zikloko eta masterreko ikasleak, ebazpen honen I. eta II. eranskinetako oinarrien eta inprimakien arabera.

Bigarrena.- Ebazpen honek sortutako gastua onestea, 1.000 euro osotara. Diru-kopuru hori 30.30.00.7553/0330/480.26 *Ikerketa Sariak* izeneko kontusailaren kargura ordainduko da. Sariak 500 eurokoak izango dira bi modalitateetan.

Hirugarrena.- Ikerketako Errektoreordetzari, Komunikazio Atalari, Kontabilitate Atalari eta Aurrekontu Atalari ebazpen hau jakinaraztea.

Laugarrena.- Agintzea ebazpen hau eta bere eranskinak Nafarroako Unibertsitate Publikoaren Kultura Zientifikoko Atalaren web-orrialdean argitaratu daitezkeen eta Arrosadiko Campuseko Errektoretzako eraikineko eta Tuterako Campuseko Ikasgelategiko iragarki-oholetan jar daitezkeen.

Bosgarrena.- Ebazpen honek administrazio bidea agortzen du, eta bere aurka, zilegi da berraztertze errekurtsoa aurkeztea, hilabeteko epean, edo, bestela, aukeran, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa Nafarroako Epaitegietan, bi hilabeteko epean, ebazpen hau Nafarroako Unibertsitate Publikoaren Kultura Zientifikoko Atalaren web-orrialdean argitaratu eta biharamunetik kontatzen hasita.

Iruñean, 2017ko uztailaren 31n

Alfonso Carlosena
ERREKTOREA

HIRU MINUTUAN LEHIAKETAREN OINARRIAK

2017ko DEIALDIA

Errektoreak emandako uztailaren 31ko **1350/2017** Ebazpenaren I. eranskina

Nafarroako Unibertsitate Publikoak apustu sendoa egin du zientzia eta teknologia zabaldu eta hedatzeko, zerbitzatzen duen gizartean laguntzeko beste modu bat den aldetik. Horregatik, Ikerketako Errektoreordetzak zientzia eta teknologia zabaldu eta hedatzeko sustatzen duen politikaren barnean, oso komenigarri ikusi da saritzea ikasleen artean, beren lana zergatik den garrantzitsua eta beren ikerketa jarduerarekin gizarteari egiten dioten ekarpena zein den ahalik eta hobekien azaltzen diotenak, espezialista ez den jendeari. Horren bidez, bihar edo etziko ikertzaileak kontzientziatu nahi dira beren lana zabaltzearen garrantziaz, eta aldi berean, gizartearen kultura zientifikoan lagundu.

Aipatu helburuak lortzeko xedez, Nafarroako Unibertsitate Publikoak 2012an lehen aldiz egin zuen “Tesiak hiru minutuan” lehiaketarako deialdia. Saria hiru kategoriatan banatzen zen: doktoretza tesi baten, master amaierako lan baten eta ikasketen amaierako proiektu baten komunikazio onenak.

Lehenengo biak Nafarroako Unibertsitate Publikoko azken ikasmailetakoko ikasleei eta prestakuntzan ari ziren ikertzaileei zuzentzen zitzaizkien, eta Ikerketako Errektoreordetzak, Komunikazio Zerbitzuak, Kultura Zientifikoaren Unitatearen bidez eta Hezkuntza Berrikuntzaren Goi Mailako Ikastegiak sustatu zituzten. Lehiaketak parte-hartzaileei jartzen zien erronka zen azaltzea hizkera errazean, ulergarrian eta jendeari orokorrean iristeko modukoan, beren ikerketaren edo ikasketen amaierako proiektuaren garapena, denbora mugatuko parte-hartze batean.

Bai lehen bi edizioetan sortutako interesa eta bai izandako arrakasta aintzat hartuta, eta lehiaketaren eragina sustatzeko helburuz, egokitzen jo zuen hurrengo bi edizioetan (2014koan eta 2015ekoan) Campus Iberus osatzen duten lau unibertsitateetan prestakuntza jasotzen duten zenbait ikertzailek parte hartzea. Hala ere, gradu eta master amaierako lanen kategoria Nafarroako Unibertsitate Publikoko ikasleentzat gelditzen ziren.

Azkenik, “Tesiak hiru minutuan” lehiaketaren antolaketa Campus Iberusi dagokio, eta horregatik Nafarroako Unibertsitate Publikoak beste izen bat jarri dio lehiaketari, “Hiru minututan”, eta lehiaketa Unibertsitateko gradu/zikloko eta masterreko ikasleei zuzentzen die.

Lehenengoa – Deialdiaren xedea

“Hiru minututan” lehiaketak parte-hartzaileei, master edo gradu azken ikasmailetakoko ikasleei, jartzen dien erronka da azaltzea hizkera errazean, ulergarrian eta jendeari orokorrean iristeko modukoan, beren ikasketen amaierako lanaren garapena, denbora mugatuko parte-hartze batean. Bere helburua da ikertzaile gazteen lana gizarteari hurbiltzea eta, aldi berean, haiengan sorraraztea zientzia eta teknologia zabaldu eta hedatzeko interesa. Horregatik sarituko da parte-hartzaileen gaitasuna ideiak eraginkortasunez komunikatzeko, eta nola helarazten zaizkion espezialista ez den jendeari, jendaurreko ekitaldi batean.

Halaber, aurreko edizioetan bezala, lehiaketa hori gehiago zabaldu nahi da, Nafarroako Radio Nacional de Españarekin (RNE) finalera iritsitako lanak emateko lortutako akordioari esker.

Bigarrena – Finantzabidea

Deialdi honek 1.000 euroko aurrekontua du osotara. Nafarroako Unibertsitate Publikoaren 2017ko gastuen aurrekontuko 30.30.00.7553/0330/480.26 *Ikerketa sariak* izeneko kontusailaren kargura ordainduko dira, eta dauden modalitateko sariak ordaintzeko erabiliko dira.

Hirugarrena – Sari modalitateak

Bi sari deituko dira, bat modalitate bakoitzeko: Hauek:

- A.- Master Amaierako Lanak. Master amaierako lan baten komunikazio hoberenari saria, **500 eurokoa**.
- B.- Gradu/Ziklo Amaierako Lanak. Gradu amaierako lan baten komunikazio hoberenari saria, **500 eurokoa**.

Laugarrena – Hautagaien betekizunak

Izangaiek betekizun hauek bete behar dituzte modalitate bakoitzean:

1. A modalitatean (Master Amaierako Lanak), parte hartzeko aukera izango dute Nafarroako Unibertsitate Publikoan beren lana aurkeztu dutenek 2016-2017 ikasturtean, betiere deialdi honen seigarren oinarrian ezarritako epea bukatu baino lehen egin badute defentsa.

2. B modalitatean (Gradu/Ziklo Amaierako Lanak), parte hartzeko aukera izango dute Nafarroako Unibertsitate Publikoan beren lana aurkeztu dutenek 2016-2017 ikasturtean, betiere deialdi honen seigarren oinarrian ezarritako epea bukatu baino lehen egin badute defentsa.

3. Lehiaketan parte hartzeko eskatzen dutenean, modalitateetarako hautagaiak egiten ari diren master amaierako lanaren edo gradu/ziklo amaierako proiektuaren zuzendariaren onspena izan beharko dute.

4. Lehiaketan parte hartzen dutenek zabaltzen duten edozein informazio, publikoa izan ahalko da. Ikerketak konfidentzialtasun-hitzarmenen baten mendekoak badira, parte-hartzaileek kontrastatu beharko dituzte lehiaketako parte-hartzearen edukiak hitzarmenak ukitutakoekin. Nafarroako Unibertsitate Publikoak ez du bere gain hartzen hori ez betetzeak ekar ditzakeen arau hausteen ardura.

5. Parte-hartzaileek lehiaketa egiten den egunean bertan egoteko konpromisoa hartzen dute. Ez da parte-hartze ez presentzialik onartuko bideokonferentzien edo horrelako sistemen bidez.

Bosgarrena – Lehiaketaren garapena

Lehiaketa 2017ko urriaren eta azaroaren artean egingo da.

Parte-hartzaile kopuruaren arabera, antolatzaileek bere egiten dute lehiaketa saio bakar batean egiteko edo aldez aurreko hautaketa fase bat egiteko eskubidea, deialdiko modalitateen arabera.

Parte-hartzaile bakoitzak hiru minutu edukiko ditu bere aurkezpena egiteko. Azaldu behar ditu bere ikerketaren gaia, zein arazo identifikatu duen, bere lanak nola laguntzen duen irtenbide bat bilatzen eta zein eragin izango duen bere lanak gizartean oro har, edo komunitate akademikoan eta ikertzaileen komunitatean zehazki.

Aurkezpena prosaz eta gaztelaniaz egin behar da. Laguntzeko elementu gisa, soilik erabili ahalko da diapositiba estatiko baten proiektzioa. Ezin da erabili beste ezein elementu (esaterako,

bideo edo audio artxibategiak), ezta bestelako osagarriker ere, adibidez, musika tresnak, laborategiko materiala, janztekoak, e.a. Era berean, ez da zilegi izango bertaratu den jendearekin elkarreragina.

Hiru minutuko gehienezko denbora gainditzen duten lehiatzaileak automatikoki baztertuko dira.

Azken fasea bideoz grabatuko da eta aurkezpen irabazleak Nafarroako Unibertsitate Publikoaren web-orrialdean egongo dira ikusteko. Baliteke jendaurreko saioak komunikabideen bidez zabaltzea eta, beharrezkoa bada, Interneten bidez.

Lehiaketaren finalera iristen direnek minutu batera laburtu beharko dute beren lana, irratiz emateko. Aurkezpenak RNE Nafarroan grabatuko dira, eta irrati publiko horretan emango dira “Píldoras Científicas: espacios de divulgación de la investigación de la UPNA” (Zientzia-pilulak: NUPEko ikerketa zabaltzeko tarreak) izeneko saioan.

Lehiaketa egin aurretik, parte-hartzaileei aukera emango zaie jendaurrean mintzatzeko trebetasunak, oratoria teknikak, eta komunikazioa eta irrati-hizkuntza ikasteko saio batera joateko.

Seigarrena – Eskerak aurkeztea

Deialdi honetan parte hartzeko interesdunek beren eskaera aurkeztuko dute horretarako ematen den inprimakia betez. Inprimakia Nafarroako Unibertsitate Publikoaren Kultura Zientifikoko Atalaren web-orriaren bidez eskuratuko da (www.unavarra.es/unidadculturacientifica), deialdi honen II. eranskinean azaltzen dena, eta argi adierazi beharko dute sariaren zer modalitatetan parte hartu nahi duten.

Deialdi honetan parte hartzeko eskaerak Nafarroako Unibertsitate Publikoko erregistroetan aurkeztu behar dira, Iruñeko campusean (Arrosadia z/g, 31006) zein Tuterakoan (Tarazonako etorbidea z/g), asteleheneetik ostiralera eta 8:30etik 14:30era arte, edo 2015eko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikulua b idatz-zatian eta hurrengoetan aipatzen diren bitarteko edozeinen bidez.

Eskaera posta bulego batean aurkeztuz gero, gutun-azal irekian egingo da, posta zerbitzuko langileak, ziurtatu aurretik, data eta zigilua jar ditzan, eta ondoren egiaztatu eta bidali Nafarroako Unibertsitate Publikoaren Erregistrora (Arrosadiko campusa, z/g, 31006 Iruñea).

Eskerak aurkezteko epea 2017ko abuztuaren 1ean hasi eta 2017ko urriaren 2an bukatuko da, bi egunok barne. Epe hori ezin izango da luzatu.

“Hiru minututan” lehiaketara aurkezteak esan nahi du onartzen direla deialdiaren oinarriak.

Zazpigarrena – Eskerak tramitatzea

Eskerak aurkezteko epea bukatu ondoren, Nafarroako Unibertsitate Publikoaren Kultura Zientifikoko Atalak gainbegiratu du deialdi honetako laugarren oinarriko 1. ataletik 3. atalera zehazten diren baldintzak betetzen ote diren. Eskatzaileek aski dute baldintzak betetzen dituztela esatea, eta ez dituzte dokumentuen bidez egiaztatu behar, Kultura Zientifikoaren Unitateak egiaztatzeko eskatzen dien kasuetan izan ezik.

Tramitean onartutako eskatzaileen eta ezarritako betekizunetakoren bat ez betetzeagatik baztertutako eskatzaileen behin-behineko zerrenda argitaratuko da Unibertsitateko Errektoretzako iragarki-oholean, Tuterako campuseko Ikasgelategiko oholean eta Nafarroako Unibertsitate Publikoko Kultura Zientifikoaren Unitatearen web-orrialdean. Eskatzaile horiei 5

egun balioduneko epea emango zaie, aipatu web-orrialdean behin-behineko zerrenda argitaratu eta biharamunetik kontatzen hasita, eta orduan aukera izango dute atzemandako gabeziak konpontzeko edo dagokien dokumentazioa osatzeko. Ezarritako epean egin ezean, eskaera ezin izango da tramitatu.

Erreklamazioak ebatzi ondoren, Nafarroako Unibertsitate Publikoko Ikerketako errektoreordeak Unibertsitateko errektoreari igorriko dio behin betiko onartutakoen zerrenda ebazpen baten bidez onetsia izan dadin. Ebazpena Nafarroako Unibertsitate Publikoaren Kultura Zientifikoaren Unitatearen web orrialdean jarriko da.

Ebazpen honen aurka interesdunek berraztertzeko errekurtsua aurkeztea zilegi dute Nafarroako Unibertsitate Publikoko errektorearen aurrean, hilabeteko epean, edo, bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsua maila bereko Nafarroako Auzitegietan, bi hilabeteko epean, Nafarroako Unibertsitate Publikoaren Kultura Zientifikoaren Unitatean argitaratzen den egunaren biharamunetik kontatzen hasita.

Ebazpena aipatu web-orrialdean jartzen bada ere, Nafarroako Unibertsitate Publikoak oinarri honetan ezarritako behin behineko eta behin betiko onartutakoen ebazpenak argitaratuko ditu, beren ikasle eta ikertzaileen artean ahalik eta zabalpen handiena lortzeko egokien jotzen dute tokian edo bitartekoaren bidez. Argitaratze horiek ez dira kontuan hartuko onartutakoen ebazpenen aurka erreklamatzeko edo errekurtsua aurkezteko epea zenbatzeari begira.

Zortzigarrena – Sarituen betebeharrak

1. Saridunek jasotzen duten diru kopurua nahi bezala erabiliko dute, eta interesdunei 2017ko abenduaren 31 baino lehen ordainduko zaie.
2. Nafarroako Unibertsitate Publikoak behar diren atxikipenak egingo ditu sarien diru-kopuruan zerga modura, araudi indardunak ezartzen duenarekin bat etorritik. Aplikatu beharreko atxikipena, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren Arautegiko 78. artikulua ezartzen duenez, % 15 da.
3. Deialdiko oinarriak betetzen ez badira, edo datuak ezkutatu, aldatu edo haietan iruzur egiten bada, saria kendu ahal izango da. Hala gertatzen denean, doakionak sariagatik hartutako dirua itzuli beharko du.

Bederatzigarrena – Sarien epaimahaia

Nafarroako Unibertsitate Publikoko Ikerketako errektoreordea izango da epaimahaiko burua, eta epaimahaia beste lau kidek osatuko dute. Kide hauek errektoreak izendatuko ditu, Ikerketako errektoreordeak proposatuta. Gutxienez bi kide Nafarroako Unibertsitate Publikotik kanpokoak diren komunikazio eta dibulgazio zientifikoko adituak izango dira.

Epaimahaia ikerketarako errektoreordeak eskatuta osatuko da, eta horretarako deialdia egingo du. Halaber, Ikerketarako errektoreordeak egingo ditu epaimahaiaren jarduna azken fasean errazteko beharrezkoak diren gestioak.

Hamargarrena – Balioesteko irizpideak

Epaimahaiak honako irizpide hauek hartuko ditu aintzat, parte-hartzaileak balioesteko garaian:

1. Ulermena. 1etik 10era bitarte puntu emango zaizkio. Balioetsiko da aurkezpena jendeak lana uler dezan lagungarria izatea:

- Lanaren nolakoaren eta helburuen adierazpen garbia izatea.
 - Ikerketan funtsezkoa zer den adieraztea.
 - Aurkezpena hurrenkera logiko batean ematea.
2. Inplikazioa. 1etik 10era bitarte puntu emango zaizkio. Balioetsiko da aurkezpena jendearen jakin-minaren pizgarria izatea.
- Parte-hartzaileak ez du ikerketa erraztu edo mailaz beheragotzen.
 - Parte-hartzaileak bere lanaren aldeko grina erakusten du.
 - Parte-hartzailea gai da publikoaren arreta bereganatu eta mantentzeko.
3. Komunikazioa. 1etik 10era bitarte puntu emango zaizkio. Balioetsiko da lanaren gaia eta bere garrantzia aditua ez den publikoari egoki zaion hizkeran komunikatzea, alegia:
- Hizlariak aski erabiltzen ditu ikus-kontaktua eta ahozko erregistroa, erritmo jarraituari eusten dio eta bere buruaz seguru dago.
 - Hizlariak ez du jargoi zientifikoa erabiltzeari muzin egiten dio, erabili behar duen terminologia azaltzen du eta aurrekariak azaltzen ditu, zenbait puntu argitzeko.
 - Hizlariak denbora egoki erabiltzen du.
 - Diapositibek aurkezpena aberasten dute, ez diote baliorik kentzen: argiak, irakurgarriak eta zehatzak dira.

Hamaikagarrena – Sariak ematea

1. Epaimahaiaren erabakia lehiaketaren azken fasea egiten den saioan bertan jakinaraziko da.
2. Epaimahaiak Nafarroako Unibertsitate Publikoko errektoreari bidaliko dio sariak emateko proposamena, lehiaketaren helburuak betetzeari eta aurkezpenen kalitateari buruzko txosten arrazoituarekin batera. Errektoreak behin betiko ebazpena emango du, sariak emateko erabakia eta saritutako izangaien zerrenda hartuko dituen.
3. Zilegi da sariak eman gabe uztea epaimahaiaren iritzia arabera hala egin behar delako edo hautagairik ez dagoelako.
4. Nafarroako Unibertsitate Publikoko errektorearen behin betiko ebazpena, sariak emateari buruzkoa, Nafarroako Unibertsitate Publikoaren Kultura Zientifikoaren Atalaren web-orrialdean jarriko da. Halaber, Ikerketako Errektoreordetza ahalik eta zabalpen handiena ematen saiatuko da. Ebazpen honen aurka interesdunek berraztertzeko errekurtsioa aurkeztea zilegi dute Nafarroako Unibertsitate Publikoko errektorearen aurrean, hilabeteko epean, edo, bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsioa maila bereko Nafarroako Auzitegietan, bi hilabeteko epean, Nafarroako Unibertsitate Publikoaren Kultura Zientifikoaren Unitatean argitaratzen den egunaren biharamunetik kontatzen hasita.

Hamabigarrena – Argitalpena

Deialdi honen oinarriak Unibertsitatearen hedabideetan jarriko dira (Nafarroako Unibertsitate Publikoko Arrosadiko campuseko Errektoretza eraikineko iragarki oholean, Tuterako campuseko Ikasgelategiko oholean eta Kultura Zientifikoaren Unitatearen web-orrialdean).

Deialdi hau aplikatzeko emandako gainerako egintzak Nafarroako Unibertsitate Publikoaren Kultura Zientifikoaren Unitatean argitaratuko dira.

Nafarroako Unibertsitate Publikoaren Kultura Zientifikoaren Ataleko web-orrialdeko argitaratze hori izango da deialdi honetako epeak eta tramiteak betetzeari begira kontuan hartuko den publizitate ofizialeko tresna bakarra, modu osagarri eta ez ofizialean interesdunei posta elektronikoaren bidez edo beren ikasle eta ikertzaileen artean ahalik eta zabalpen handiena lortzeko Nafarroako Unibertsitate Publikoak egokien jotzen duen tokian edo bitartekoaren bidez jakinarazpenak egiteko aukera galarazi gabe.

Hamahirugarrena – Errekurtsoak

Deialdi honen eta bere oinarrien aurka interesdunek berraztertze errekurtsoa aurkeztea zilegi dute Nafarroako Unibertsitate Publikoko errektorearen aurrean, hilabeteko epean, edo, bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa maila bereko Nafarroako Auzitegietan, bi hilabeteko epean, Nafarroako Unibertsitate Publikoaren web-orrialdean argitaratzen den egunaren biharamunetik kontatzen hasita.